

ERREGELAMENDUA

EUSKADIKO TXAKURKROS

LIGA



2023-2024 denboraldirako eguneratua

ALDERDI OROKORRAK

Erregelamendu honetan ezarritakoaren arabera egingo dira ***Euskadiko Txakurkros Ligarako puntuagarriak diren*** Mushing lehiaketak, txakurkros motakoak. Erregelamendu honetan araututa ez dauden alderdiei dagokionez, RFEDiren araudia aplikatuko da.

1. ORDEZKARI TEKNIKOA ETA LASTERKETAKO EPAIMAHAI.

1.1 Ordezkarit teknikoak probak indarreko erregelamenduen arabera egiten eta garatzen direla bermatu beharko du, eta erregelamendu horiek aplikatzeaz arduratuko da.

Ordezkarit teknikoa proba bakoitzeko lasterketa-zuzendaria izango da.

1.2 Nolanahi ere, ordezkari teknikoa izango da arduradun nagusia erabakiak hartzerakoan, eta lasterketako epaimahaiaren laguntza izango du, bai eta kronometrajearen arduradunaren eta lasterketako albaitari-buruaren laguntza teknikoa eta profesionala ere.

1.3 Proba bakoitzean lasterketako epaimahai bat egongo da, eta kide hauek izango ditu:

- Ordezkarit teknikoa (lasterketa-zuzendaria)

- Lasterketako epaileak.
- Kontrolen arduraduna.
- Albaitarien burua.

1.4 Ordezkaritza teknikoak deituko du lasterketako epaimahaia, kideren batek eskatzen duenean, eta, beti, sailkapenetik kanpo uztea ekar dezakeen erregelamenduen urratze bat berrikusteko. Epaimahaia kide anitzeko organoa da, eta haren iritzia aholku-emailea da. Epaimahaiaren iritzia entzun ondoren, ordezkari teknikoak bere erabakia hartuko du planteatutako kasuari buruz.

1.5 Lasterketako epaimahaiak erabakiko du, aurkezten zaizkion kasu guztietan, aukeratu ahal diren zehapen-neurrien gainean.

Lasterketako epaimahaiko ordezkari teknikoak boto erabakigarria izango du berdinketa izanez gero. Deskalifikazioa gertatuz gero, ordezkari teknikoak beste modu batera eman ahal izango du botoa bere boto erabakigarria baliatuta.

1.6 Antolatzaile guztiek epaile bat edo bi izendatuko dituzte, eta epaile izango dira denboraldian zehar. Horrez gainera, proba bakoitzean, antolatzaile bakoitzak araudia zaintzeko eta gainbegiratzeko egokitzat jotzen dituen epaileak izendatuko ditu. Lasterketa bakoitzaren aurretik, proba horretarako gaitutako epaileen zerrenda bat egongo da.

2. PARTE-HARTZAILEAK

2.1 Txakurkros-probetan parte hartzeko, deialdi bakoitzaren baldintzak bete beharko dira (betekizunak, epeak, prozedura eta izena emateko kuotak). Deialdi hori ETLren araudian ezarritakoaren arabera egingo da.

3. TXAKURRAK

3.1 Arraza guztietako txakurrek parte hartu ahal izango dute, betiere forma fisiko onean badaude eta albaitariaren nahitaezko kontrola gainditzen badute.

3.2 Parte hartzen duten txakurrek **gutxienez urte eta erdi (18 hilabete)** izan beharko dute lasterketaren aurreko egunean, eta, **gehienez, 10 urte**.

3.3 Txakurrek derrigorrezko mikrotxipa izan beharko dute.

3.4 Ez da onartuko argi eta garbi arriskutsuak diren txakurren parte-hartzerik. Arriskutsuak esaten denean, txakurrez ari dela ulertu behar da, eta ez arraza jakin batez. Txakurrekin izandako gorabeherei buruzko informazioa kirolariaren espedienteetan sartuko da.

3.5 Ezin izango da txakurra aldatu proba beraren barruan, baina bai proba batetik bestera.

3.6 Txakurraren izena proba bakoitzeko sailkapen-zerrenda indibidualetan agertuko da.

3.7 Txakur berak ezin izango du proba berean bi korrikalarirekin lehiatu, ezta egun berean proba batean baino gehiagotan ere, salbu eta bigarren proba txakurkros-erreleboa bada.

4. KATEGORIAK

4.1 Katetoria hauek izango dira sexuaren eta adin-tarteen arabera:

Junior I, gizonak eta emakumeak: 14-20 urte.

Seniorra, gizonak eta emakumeak: 21-39 urte.

Beteranoak 40, gizonak eta emakumeak: 40-49 urte.

Beteranoak 50, gizonak eta emakumeak: 50 urte edo gehiago

4.2 Lehiakide bakoitzaren kasuan, adin bera hartuko da kontuan denboraldi osorako, eta, lehiaketa-denboraldia amaitu ondoren, lehiakideak abenduaren 31n duen adina izango da. Kontuan hartu behar da 4.1 puntuan adierazitako adinak abenduaren 31n, denboraldia amaitu ondoren, izango liratekeenak direla, eta,

beraz, ez dute bat etorri behar kirolariak denboraldian zehar duen benetako adinarekin.

4.3 16 urteko korrikalari batek senior kategorian parte hartzea erabaki dezake. Beteranoen kategoriako korrikalari batek senior kategorian parte hartzea erabaki dezake. Horretarako, kirolariek horren berri eman beharko diote, beren federazio autonomikoaren bidez, RFEDIri (federazio-lizentzia izanez gero) eta ETLri (federatua ez bada). Aukeratutako kategoria denboraldi osorako izango da, eta denboraldiko lehen proban parte hartzeko aukeratutako kategoria izango da.

4.4 Lasterketa batean, kategoria batean hiru parte-hartzaile baino gutxiago badaude, antolatzaileak erabaki dezake sexuaren arabera taldekatzea, honela: Junior-kategoria senior-kategoriarekin elkartuko da, eta beteranoena senior-kategoriarekin, senior kategorian.

4.5 Antolatzaileak haurren kategoriarako deialdia egin ahal izango du (14 urtetik beherakoak), erakustaldi gisa soilik (sailkapenik gabe, denborarik hartu gabe, eta parte-hartzaile guztiei sari berbera emango zaie); bostehun metrotik beherako ibilbidea izango du. Ume kirolaria heldu batekin joango da, eta heldu horrek tiro-uhal laburragoa eramango du txakurrari lotuta egoteko.

5. IZEN-EMATEAK

5.1 ETLren txakurkros-probetan parte hartzeko, proba bakoitzeko kronometraje-plataformen bidez eman beharko da izena.

5.2 Datuak Babesteko Lege Organikoan ezarritakoaren ondorioetarako, emandako datu pertsonalak proben barne-kudeaketarako eta informaziorako baino ez dira erabiliko.

5.3 Behin izena emateko epea amaituta, kirolariak inskripzioa deuseztatzeak ez du inola ere ekarriko parte-hartzeko ordaindutako zenbatekoa itzultzea. Antolatzaileak proba bertan behera utziz gero, parte-hartzeko ordaindutako zenbatekoa baino ez du itzuli beharko. Hala ere, antolatzaileak ez du bere gain hartuko kirolariak izan duen beste gasturik, hala nola joan-etorrien gastuak, ostatu-gastuak eta abar.

5.4 Proben inskripzio-kuota antolatzaileak finkatuko du, eta hiru euroko aldea egon daiteke korrikalari federatuaren eta federatu gabearen artean.

5.5 Kuota hori antolatzaileak probaren deialdian adierazten duen moduan ordainduko da.

6. ERANTZUKIZUNAK

6.1 Izena ematen duenean, kirolariak adierazten du erregelamendu hau ezagutzen eta onartzen duela, eta bere gain hartuko du berak eta bere txakurrek proban zehar hirugarrenei eragin diezaieketen edozein kalteren ardura. Proba esaten denean, tarte honetaz ari da: albaitaritza-kontrola hasi baino hogeita hamar minutu lehenagotik trofeoak eman eta ordubete igaro arte. Izena ematen dutenean, kirolari guztiek adierazten dute erantzukizun zibileko aseguru bat dutela, beren txakurrak kirola egiten duen bitartean eragin ditzakeen kalteak berariaz estaltzen dituen.

6.2 Txakurkros-proba baten antolatzaileak ez du erantzukizunik izango, proba egin bitartean, ez eta aurreko eta ondorengo uneetan ere, txakur edo kirolariak eragin ditzaketen kalteen gainean. Hala ulertuko eta onartuko du edozein probatan izena ematen duen edozein kirolarik.

6.3 Proba bakoitzaren antolatzaileak erantzukizun zibileko poliza bat izango du, probaren alderdi guztiak estaltzeko.

6.4 Kirolaria izango da txakurraren erantzule une oro, lasterketaren lekura iristen denetik alde egiten duen arte. Ez da onartuko txakurrak aske ibiltzea, ez proba egin aurretik, ez bitartean, ez ondoren.

7. ALBAITARIAREN KONTROLA

7.1 Talde guztiek pasatu beharko dute albaitariaren kontrola proba hasi aurretik. Kirolariaren erantzukizuna izango da lasterketa egingo den lekura garaiz joatea, antolatzaileak aurreikusitako programari jarraituz kontrola egin ahal izateko.

7.2 Kirolaria albaitari-kontrolean aurkeztu beharko da parte hartuko duen animaliarekin batera, eta txakurkroserako behar den materiala, txertaketa-kartilla edo pasaportearen –urtero eguneratua eta Albaitarien Elkargoko kide den albaitari batek sinatu eta zigilatua– eta **nahitaezko mikrotxipa** ezarri izanaren ziurtagiria izan beharko ditu.

7.3 Hauek dira nahitaezko txertoak:

a) **Amorruaren aurkakoa.**

b) **Balio anitzekoa** (parbobirosiaren, leptospirosiaren txakur-mukieriaren eta txakur-hepatitisaren aurkakoa, gutxienez)

c) **Bordetella bronchiseptikoaren (txakurtegietakoa ez tula)** aurkakoa; Pneumodog edo Novivac KC motakoa.

Aurreko gaixotasunei aurre egiteko txertoa lehen aldiz jartzen denean, proba egin baino hogeita bat egun lehenago eman beharko da txertoa, gutxienez.

Bordetellaren aurkako txertoa proban parte hartu baino hamabost egun lehenago jarri beharko da gutxienez. Gainerako txertoak proba baino hamabost egun lehenago jartzea gomendatzen da.

7.3.1 Zestodoak eta nematodoak kentzeko barne-desparasitazioa nahitaezkoa izango da sei hilean behin, baina gomendagarria da hiru hilean behin egitea. Txertaketa-kartillan edo pasaportean agertu beharko da, eta albaitari baten zigilua izan beharko du. Albaitari arduradunak informazio hori eska diezaieke parte hartzen duten kirolariei. 2022-2023 denboraldian ez da nahitaezkoa izango eta ez du abisurik (*warning*) eragingo, baina nahitaezkoa izango da hurrengo denboraldietatik aurrera.

7.4 Albaitariaren kontrolean, kirolariak lizentzia duten txakurren zerrendaren agiri ofiziala aurkeztu beharko du, eta proba bakoitzean arituko den txakurra markatu beharko du. Animaliarene datuen artean, mikrotxipa idatzita dagoela ziurtatu beharko da, albaitariak txip hori erabiliko baitute edozein unetan animaliarene nortasuna egiaztatzeko.

7.5 Albaitariaren kontrola pasatu duten txakurrak bertako albaitari-taldeak aztertu ahal izango ditu proba egiten den bitartean osasun-arazorik sortuz gero.

7.6 Albaitariaren kontrola gainditu ez duten txakurrek ezin izango dute proban parte hartu. Berehala utzi beharko dituzte proba egiteko eremua eta instalazioak txertaketa-arauak betetzen ez dituzten txakurrek, baldin eta gaixotasun infekzioso eta kutsakorren susmoa badago, eta lasterketako albaitari-taldeak hala erabakitzen badu.

8. NAHITAEZKO EKIPAMENDUA

Txakurkros-proba batean parte hartzen duten taldeek material hau izan beharko dute nahitaez:

8.1 Txakurkros-gerrikoa: Kirolariaren gerrirako. Erosoa izan behar du kirolariarentzat, eta tiro-uhala gerrikoan finko egongo den mosketoi baten bidez akoplatzeko aukera eman behar du. Funtzio horiek betetzen dituen edozein gerriko onartuko da, baina material espezifiko edo mendiko arnes arinak erabiltzea gomendatzen da.

8.2 Tiro-uhala: Kirolariaren gerrikoa txakurraren arnesarekin lotzeko. Indargetze-eremu elastiko bat izan beharko du. Tiro-uhalaren luzera, lokailuarekin hedatuta, ez da izango 2 metrotik beherakoa, ezta 3 metrotik gorakoa ere.

Tiro-uhala txakurraren arnesera lotzeko, mosketoi bat edo kordino bat erabiliko da. Kordinoa erabiltzea gomendatzen da. Materialak arina, erresistentea eta hidrofugoa izan behar du.

8.3 Tiro-arnesa: Txakurrarentzako arnesa. Tira egitekoa izan behar du, eta zehaztapen hauek bete behar ditu:

- Erresistentea izan behar du, txakurrak hautsi eta ihes egitea saihesteko.

- Txakurra urratuetatik babestu beharko du tira egiten ari den bitartean. Horregatik, txakurraren azala ukitzen duten ataletan, urratzailea eta zorrotza ez den materiala erabiliko da. - Talka-eremuak (bularrezurra eta lepoaren ingurua) barrubigunak izango dira, eta ez dute izango inolako eraztunik edo antzekorik.
- Txakurraren hankak normal zabaltzeko aukera eman behar du, inolako eragozpenik gabe.
- Amaierako muturrean kordino bat izango du tiro-uhalera lotzeko.
- Arnes gurutzatuak gomendatzen dira, bizkarretik isatseraino gurutzatzekoak, hobeto banatzen baitute tiro-indarra txakurraren bizkarretik.
- Ez dute izango inolako eraztunik edo antzekorik (behar bezala babestuta daudenean izan ezik), txakurrak urraturik edo lesiorik izan ez dezan.
- Debekatuta daude aurreko hanken aurretik horizontalki gurutzatzen diren arnesak, deformazioak eragin baititzakete eta aurreko hankak normal zabaltzea eragozten baitute.

8.4 Eskularruak: Zirkuitu batzuetan tarte zailak egon daitezkeenez, kirolariaren eskuak erorikoetatik babesteko, eskularruak erabiltzea eska daiteke, zirkuituaren arabera. Beti erabiltzea gomendatzen da. Ordezkaritako teknikoak nahitaez erabili behar direla adierazi ahal du, zirkuituaren arabera.

8.5 Oinetakoak: Ez da onartuko txakurrarentzat arriskutsua izan daitekeen oinetakorik. Gehienez ere 1 mm-ko altuerako iltzeak edo takoak dituzten

oinetakoak erabil daitezke. Elurretan, ez irristatzeko lokarriak edo antzekoak onartuko dira zolan.

8.6 Mozala: Arriskutsuak izan gabe, beste txakur batzuen aurrean gatazkatsuak izateko joera duten txakurrek mozala jarrita egingo dute irteera, edo, bestela, abiatzen azkenak izango dira.

Era berean, kirolariak kontuan hartuko du lasterketa osoan zehar mozala mantentzea komeni den, betiere txakurraren arnasketa normala eta arnasestua oztopatzen ez baditu; beraz, saski motakoa izan beharko du. Nolanahi ere, kirolariaren erantzukizuna izango da txakurra une oro kontrolatzea, eta, egiten ez badu, zehapena ezarri ahal izango zaio, edo karreratik kanporatu.

8.7 Lepokoa. Debekatuta dago modu erabat itogarrian katigatu ahal diren lepokoak erabiltzea. Lasterketa lepokoa jarrita egiten duten txakurren kasuan, ezin izango da lepokoa erabili txakurra frenatzeko edo atzerantz tira egiteko. Lepokoa segurtasun-neurri gisa baino ezin izango da erabili txakurrari arnesa ateraz gero.

8.8. Ligako proba bakoitzean batera antolatzen diren herri-lasterketetan, antolatzaile bakoitzak bere erregelamendua eduki ahal izango du proba horietarako. Hala ere, ETL ligarako puntuagarriak diren lasterketetarako ezarritako txertoei eta kirol-material espezifikoiei buruzko araudia bete beharko da. Horretarako, materialaren kontrola eta albaitariaren kontrola pasatu beharko dira. Txertoei buruzko eskakizunak betetzen badira eta probako albaitariaren

baimena lortu bada, lasterketaren aurreko egunean gutxienez urtebeteko (12 hilabete) adina duten txakurrek parte hartu ahal izango dute.

8.9. Korrikalariak nahitaezko materialaren kontrola gainditu beharko du ligaosatzen duten proba guztietan irteera eman aurretik.

9. ZIRKUITUA

9.1. Lasterketa hasi aurretik, informazio-bilera bat egingo da, eta, bertan, ordezkari teknikoak zirkuituaren trazatuaren, seinaleztapen-sistemaren eta proba egiteko garrantzitsua izan daitekeen beste edozein daturen berri emango du.

9.1.1 Informazio-bilerara edo *musher meeting* horretara joatea nahitaezkoa da, eta txakurrik gabe joan beharko da.

9.2 Proba bakoitzaren amaieran, antolatzaileek hornidura likidua eskaini beharko dute txakurrentzat.

9.3 Proben zirkuituak, oro har, 2 eta 10 km artekoak izango dira. Probaren ibilbidea osatzeko, gehienez ere bi bira egin ahal izango dira zirkuitu berean.

9.4 Proba ez da bertan behera utziko euria egiten badu, baina bertan behera utziko da muturreko egoeraren bat eta/edo alerta meteorologikoa egonez gero.

9.5 Temperatura eta hezetasuna irteera baino 30 minutu lehenago neurtuko dira, irteera-puntuan, itzalean, gehienez ere zoruaren mailatik berrogeita hamar zentimetrora. Gehieneko eta gutxieneko temperatura eta hezetasuna idatziko dira proba osoan zehar. Egoera antiziklonikoa denean, kontuan hartuko da temperaturaren inbertsioa izateko aukera, eta temperatura eta hezetasuna neurtu beharko dira zirkuituaren alderik altuenean ere; bi neurketa-puntuen emaitzarik altuena hartuko da kontuan. Gehieneko eta gutxieneko kopuruak eman ondoren, probaren antolatzaileek eta ordezkari teknikoak honako erabaki hau hartuko dute:

- 16 °C-tik beherako temperatura: proba normaltasunez garatuko da.
- 16 °C-ko edo gehiagoko eta 18 °C-tik beherako temperatura: distantzia ez da 4 km-tik gorakoa izango.
- 18 °C-ko edo gehiagoko eta 22 °C-tik beherako temperatura: Distantzia ez da 2 km-tik gorakoa izango.
- 22 °C-ko edo gehiagoko temperatura: ez da irteerarik onartuko.

Temperatura 18 °C-ra iristen bada eta hezetasuna % 85etik gorakoa bada, ordezkari teknikoak bilera bat egingo du lasterketako albaitariekin, egokiena erabakitzeko. Albaitarien iritzia beste edozein iritziren gainetik egongo da. Erabakitzeko faktore nagusia animalien ongizatea izango da beti.

Lasterketa-pistaren arabera (adibidez: sekzio zabala eguzkipean, edo beste inguruabar batzuk), ordezkari teknikoak distantzia laburragoak egitea edo kirolean eragin onuragarria duten beste neurri batzuk hartzea erabaki ahal izango du, baita gorago adierazitako gehieneko temperaturetara iristen ez bada ere.

9.6 Lasterketak mendiko bide, bidexka eta pistetatik egingo dira batez ere, eta asfaltoa, zementua, urratze-eremuak eta halakoak dituzten zatiak herriguneetatik bideetara iristeko ezinbestekoak direnean baino ez dira erabiliko; nolanahi ere, ibilbide osoaren % 10 izango dira gehienez ere.

9.7 Lasterketako albaitariaren aholkularitzarekin eta probaren ezaugarriak kontuan hartuta (adibidez, eguneko ordua edo ibilbidea eguzkitan egotea), ordezkari teknikoak kirolariei aholkatuko die zer neurri hartu behar dituzten, hala nola txakurrak freskatzea, txakurrentzako ura edukitzea edo gehiegi ez behartzea.

9.8 Antolatzaileak tenperaturaren eta hezetasunaren kontrolak egiteko behar diren aparatuak izan beharko ditu.

9.9 Probako albaitari-buruak zirkuitua aztertu ahal izango du, baldintzak egiaztatzeko eta ingurunea behar bezala ezagutzeko.

10 IRTEERA ETA IRITSIERA

10.1 Irteerak banaka, kategoriaka, binaka edo taldeka egin ahal izango dira. Lehiakideak lepokotik edo arnesetik eutsiko dio bere txakurrari, eta irteera-lerroaren atzean egongo da, irteteko seinalea egiten den arte.

10.1.1 Zirkuituak aukera ematen badu, irteerak multzoka egingo dira, 1 eta 5 pertsona arteko taldeetan, eta 30 segundo utziko dira, gutxienez, talde batetik bestera.

10.1.2. 2 korrikalari edo gehiago aldi berean irteten direnean, tiro-uhala bilduta egongo da, irteera-puntutik antolatzaileak markatutako distantzia bete arte. Leku hori markatuta ez badago, ezin izango da askatu arriskurik gabeko eremu batera iritsi arte.

10.2 Irteerak taldeka egiten direnean, irteera-parrila bat ezarriko da, eta 1,5 metro utziko dira gutxienez kirolarien artean, txakurren arteko gatazkak saihesteko. Txakur gatazkatsuak azkenak irtengo dira edo mozala jarrita irtengo dira.

10.3 Irteeraren eta iritsieraren artean, pistako arauak beteko dira, eta kirolariak ezin izango du kanpoko laguntzarik jaso, probako erregelamenduan ezarrita ez badago.

10.4 Iristeko denbora txakurrak helmuga zeharkatzen duenean zehaztuko da. Txipa erabiltzen denean, txipak markatuko du korrikalari bakoitzaren denbora. Korrikalari bi aldi berean iristen badira, kontuan hartuko da noiz zeharkatu duten helmuga haien txakurrek. Horretarako, aintzat hartu beharko da lasterketako epaileak edo, bestela, ordezkariak esaten duena. Argazkiak edo bideoak aurkeztu ahal izango dira froga fede-emaila gisa.

10.5 Komenigarria da antolatzaileek txipak erabiltzea kronometratzeko.

11 PISTAKO ARAUAK

11.1 Lasterketak dirauen bitartean, kirolariak txakurraren atzean egin beharko du korrika, beti. Gehienez ere, atzeko hanken parean egon ahal izango da.

11.1.1 Antolatzaileek **free-dog** marka duten seinaleak jarri ahal izango dituzte ibilbidearen zati batzuetan; ibilbidearen zati horretan, txakurra solte eraman ahal izango da, edo kirolariaren atzetik, betiere animalia kontrolatuta badago (eta gainerako korrikalariei eragozpenik sortzen ez badira) eta harengandik tira egiten ez bada (lotuta doanean).

11.2 Kirolariak norabide-aldaketetan baino ezin izango dio tira egin txakurrari, edo arreta galtzen duenean edo jakin-mina erakusten duenean, pasabide zailetan (errekak, zubiak, putzuak, bidegurutzeak, etab.). Oztopoa gainditzeko edo txakurra zirkuitura itzularazteko behar den denboran baino ez dio egingo tira.

11.3 Kirolariak bere txakurra ezagutu beharko du, eta kontrolatzeko neurriak hartu, une oro.

11.4 Ez da onartuko norberaren txakurrari edo besteen txakurrei eraso fisikoak edo hitzezkoak egitea.

11.5 Kirolaria eta haren txakurra kontrol-puntu guztietatik pasatu beharko dira, zirkuitutik atera gabe.

11.6 Lasterketak dirauen bitartean, ezin izango da kanpoko laguntzarik jaso. Kontroletan, ordezkari teknikoak agintzen duenean baino ezin izango zaio eman laguntza kirolariei, baita aurretiaz zehaztutako leku arazotsuetan ere, hala nola baserriak edo abereak dituzten eremuak zeharkatzen direnean. Txakurrarentzat, kirolariarentzat edo hirugarrenentzat arriskua izanez gero, laguntza eman ahal izango zaio hala behar duen taldeari.

11.7 Zehapenak jarriko dira ibilbidea jateko-edatekoen hondakinekin (edalontziak edo janaria) edo txakurren gorozkiekin zikintzen edo hondatzen bada. Kirolariaren ardura izango da anoaren hondakinak paperontzietan botatzea. Anoa emateko lekuetatik hurbil jarriko dira paperontziak. Halaber, kirolariaren ardura izango da txakurraren gorozkiak pistatik kentzea.

11.8 Kirolariak ikusteko lekuan eramango du dortsala beti, eta bereziki kontrol-puntuetatik pasatzen denean eta helmugara iristen denean.

11.9 Larrialdirik izanez gero, nahitaez lagundu behar zaio ukitutako taldeari, eta informazioa eman hurbilen dagoen kontrol-puntuan..

11.10 Beste talde bat aurreratzeko, nahitaez ohartarazi behar zaio, ahoz, “PASO” esanda, besteak jakin dezan eta txakurra kontrolatu, eta aurreratzea ahalbidetu

dezan. Ahal dela, ezkerretik aurreratuko da beti, eta aurreratua den kirolariak libre utziko du zati hori. Bi kirolariek bildu egingo dute tiro-uhala. Komeni da aurretiaz jakinaraztea zein aldetatik aurreratu nahi den, baina horrek ez du esan nahi nahitaez utzi behar denik leku horretatik pasatzen.

11.11 Debekatuta dago korrika egitean pista osorik okupatzea, txakurra pistaren alde batean eta kirolaria beste aldean kokatuta.

11.12 Kirolariren batek lasterketa bertan behera uzten badu, hurbilen dagoen kontrol-puntuari edo antolakuntzari jakinarazi beharko dio.

11.13 Lasterketa beste proba batekin batera egiten bada, errespetuz jokatu beharko da parte hartzen duten gainerako korrikalariekin.

12. SARIAK ETA SAILKAPENAK

12.1 Proba amaitu ondoren, eta sailkapenaren arabera, antolakuntzak sariak emango dizkie kategoria bakoitzeko lehen hiru sailkatuei.

12.2 Ligaosatzen duten lasterketa guztien sailkapen orokorra egingo da, eta antolatzaileen ardura izango da probak puntuatzea, eta gorabeherak horretarako sortuko den datu-basera helaraztea. Honela zehaztuko da lasterketa bakoitzeko puntuazioa:

1.- 50 puntu 2.- 45 puntu 3.- 40 puntu
 4.- 38 puntu 5.- 36 puntu 6.- 34 puntu
 7.- 32 puntu 8.- 30 puntu
 9.- 29 puntu 10.- 28 puntu 11.- 27 puntu.... eta horrela modu
 korrelatiboan

banan-banan, puntu 1era iritsi arte...

Ligako sariak eskuratu ahal izateko, lasterketa-kopuru jakin batean parte hartu beharko da, gutxienez* (1. taulan begiratu), eta probintzia bakoitzeko bat izan beharko da, gutxienez (gaur egun, Bizkaia eta Gipuzkoa). Ligaren amaieran, partaide bakoitzaren emaitza guztiak hartuko dira kontuan. Nafarroan, Etxarriko lasterketa komodin gisa erabiliko da, Bizkaian eta Gipuzkoan behar beste lasterketa egin ez badira, betiere gutxieneko lasterketak egin badira.

Lasterketak, ligan	Nahitaezko gutxienekoak
10	8
9	7
7-8	6
5-6	4
4	4

1. taula. Lasterketen gutxieneko kopurua.

Salbuespen gisa, eta aho batez erabakita, 2022-2023 denboraldian, gutxienez 7 lasterketa egin beharko dira, Eibarko lasterketaren data aldatu dela eta.

13. ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

13.1 Erregelamendu honetan ezarritako arauak betetzen ez badira, zehapena jarriko da larritasunak eta inguruabarrak kontuan hartuta: abisua, penalizazioa edo sailkapenetik kanpo uztea. Arauak ez betetzea joko-arauen edo lehiaketako arauen arau-haustetzat probak egiten ari diren bitartean.

13.1.1 Arau-haustek edo *warning* direlakoak korrikalariari eta txakurrari egotziko zaizkio.

13.2 ABISUA: Ohartarazpena izango da, eta ez du penalizaziorik ekarriko denboran. Idatziz jasoko dira, lasterketako sailkapenekin eta gainerako zehapenekin batera, eta kirolariaren espedientean sartuko dira. Abisuarekin zigor daitekeen faltatzat joko dira hauek:

13.2.1 Ez egitea korrika txakurraren atzetik, lehen aldiz egiten denean.

13.2.2 Dortsala ikusteko lekuan ez izatea, irteeran dortsala jarrita ez izatea edo lasterketan zehar galtzea.

Ohartarazpenak ez du eraginik izango dortsala ez ikusteak antolaketari dagokionez izan dezakeen ondorioetan, eta antolakuntza ez da behartuta egongo dortsalik ez duen kirolariaren denbora kronometratzera ez badauka kirolari hori identifikatzeko modurik.

13.2.3 Kirolariak txakurra ez kontrolatzea irteeran.

13.2.4 Lasterketa baino lehenagoko informazio-bilerara ez joatea, bilera hori nahitaezkoa denean.

13.2.5 Parke itxiaren kontroletik ez pasatzea, halako kontrola dagoenean.

13.2.6 Txakurra aske eramatea jendea elkartzeko lekuan, lasterketa baino lehen edo ondoren..

13.2.7 Irteeran ez eramatea tiro-uhala bilduta antolakuntzak ezarritako distantzian.

13.2.8 Talde bati laguntza ematea pausoa markatuta.

13.2.9 Ordezkarik teknikoak ezarritako beste kasu batzuk, betiere informazio-bileran adierazi badira.

13.2.10 7.3 puntuan adierazitako nahitaezko txerto guztiak ez aurkeztea.

13.2.11 Lasterketetako araudia urratzen denean ABISUA emango da kasu hauetan:

13.2.11.1 Kirolariarentzat abantaila ez badakar edo gainerako partaideei kalterik eragiten ez badie.

13.2.11.2 Ez bada kaltegarria kirolerako, probarako edo beste lehiakide batentzako.

13.2.11.3 Ondoriorik ez badu gainerako partaideentzat eta arau-haustea egin den lehen aldia bada.

13.3 DENBORA GALTZEAREN ONDORIOZKO PENALIZAZIOA.

Kasu hauetan hogeita hamar (30) segundo gehituko zaizkio proban lortutako denborari:

13.3.1 Ez egitea korrika txakurraren atzean, bigarren aldia denean, edo lehenengo aldian, beste partaideari zuzeneko kaltea eragiten bazaio.

13.3.2 Txakurrari atzetik bultza egitea edo harengandik tira egitea, lehenengo aldia denean.

13.3.3 Zuzenean penalizazioarekin edo deskalifikazioarekin zigortu ezin diren arau-hausteengatik bi abisu jasotzea.

13.3.4 Antolakuntzak ezarritako distantzia egin baino lehen askatzea tiro-hala (kasu honetan, 30 segundoko penalizazioa ezarriko da).

13.3.5. TXAKUR GATAZKATSUA

13.3.5.1 Halako lehen ohartarazpena egiten denean, denborarekin penalizatuko da.

13.3.5.2 Halako bigarren ohartarazpena denborarekin zigortuko da, eta, gainera, txakurra azkena irtengo da denboraldiko hurrengo probetan.

13.3.5.3 Halako hirugarren ohartarazpenak 13.3.5.2 puntuko zigorra ezarriko da, eta, gainera, txakurrak mozala eraman beharko du nahitaez.

13.3.5.4 Halako laugarren ohartarazpenak bai txakurra bai korrikalaria ligatik berehala deskalifikatzea ekarriko du.

13.3.6 Aurreratzeko aukera ez ematea edo aurreratzea oztopatzea.

13.3.7 Txakurra ez kontrolatzea free-dog batean eta/edo txakurrak gainerako partaideei traba egitea.

13.3.8 Ordezkaritza teknikoak adierazitako gainerako kasuetan, betiere informazio-bileran jakinarazten badira.

13.4 DESKALIFIKAZIOA: kronometrajea deuseztatzea eta kirolaria ez sailkatzea ekarriko du. Deskalifikazioak ez du ekarriko kirolariaren espedientea “zeroan” jartzea, baina puntuak galtzea eta dagokion probako parte-hartzea aintzat ez hartzea ekarriko du. Hauek izango dira deskalifikatzea ekarriko duten faltak:

13.4.1 Ez egitea korrika txakurraren atzean, hirugarren aldiz gertatze denean.

13.4.2 Txakurrari atzetik bultza egitea edo harengandik tira egitea, bigarren aldiz gertatzen denean.

13.4.3 Norberaren txakurrari edo beste txakur batzuei tratu txarrak eragitea edo eraso egitea beste kirolari bati edo antolakuntza kide bati.

13.4.4 Txakurrarekin oldarkor jokatzeko edo kontrol-falta larria izatea txakurraren gainean, beste taldeak, ikusleak edo antolatzaileak arriskuan jartzen direnean.

13.4.5 Ibilbidea ez amaitzea; amaitzea, baina kontrol-puntu guztietatik ez pasatzea, edo bidea laburtzea seinaleztatutako zirkuitutik kanpo.

13.4.6 Kanpo laguntza jasotzea horretarako baimenik ez dagoenean.

13.4.7 Ibilbidea zikintzea edo degradatzea.

13.4.8 Nahita kaltea eragitea beste taldeei edo antolakuntzako materialari.

13.4.9 Beste taldeei laguntzarik ez ematea istripuren bat dutenean.

13.4.10 Lasterketak dirauen bitartean, txakurrari alde egiten uztea, askatzea edo galtzea, nahiz eta gero berreskuratu.

13.4.11 Albaitariaren edo materialaren kontroletik ez pasatzea, edo kontrola ez gainditzea.

13.4.12 Izena emateko ezarritako betekizunak ez betetzea (lizentziak, txakurraren erantzukizun zibileko aseguraa, kirolariaren istripuetarako kirol-asegurua, txerto espezifikoak, izena emateko kuota...).

13.4.13 Kirolariak uko egitea dopin-test bat egiteko laginak emateari edo beste pertsona batzuen laginak edo dopin-testa egiteko aukeratutako txakurrak ez direnen laginak aurkeztea.

13.4.14 Probako albaitariak txakur batek gaixotasun kutsagarria duela diagnostikatzea.

13.4.15 Ibilgailu batean garraiatua izatea onartzea, txakurra galdu duenean izan ezik.

13.4.16 Zuzenean deskalifikazioarekin zigortu ezin diren arau-hausteengatik hiru abisu jasotzea.

13.4.17 Kirolariak lasterketako araudia urratzea, nahita edo zabarkeriaren ondorioz, urratze horrek abantaila badakarkio edo lehiakideei traba eragiten badie.

13.4.18 RFEDIren edo IFSSren lasterketetako araudian ezarritako beste edozein kasutan.

13.4.19 7.3 puntuan adierazitako nahitaezko txertoak ez aurkeztea, bigarren aldiz denean.

13.5 Lasterketako epaileek edo zirkuituko kontrol-puntuetako kontrolatzaileek edo ofizialek erregelamenduen arau-hausleen dortsala apuntatu beharko dute, eta arau-haustea egin den unean bertan horren berri ematea arau-hausleari.

Nahikoa izango da epaileen, kronometratzaileen, antolatzaileen edo beste kirolarien lekukotza. Penalizazio guztiak lasterketako epaimahaiak erabaki eta aplikatuko ditu. Erabakia hartzeko, aurkezten diren argazkiak eta/edo bideo-grabazioak erabili ahal izango ditu.

13.6 Probetatik eratorri ahal diren diziiplina-kontuak RFEDIren kirol-diziplinari buruzko kodean ezarritakoarekin bat etorrita izapidetuko dira.

14 ERREKLAMAZIOAK

14.1 Probako sailkapenak eta zehapenak sariak eman baino lehen argitaratuko dira.

14.2 Erreklamazioak sailkapenak argitaratu eta hamabost minutu igaro arte aurkeztu ahal izango dira. Idatziz aurkeztu beharko zaizkio ordezkari teknikoari, lasterketako epaimahaiak ebazpena eman dezan sariak banatu aurretik. Ordezkari teknikoak ez ditu onartuko epez kanpo aurkeztutako erreklamazioak.

14.3 Lasterketako epaimahaiak (kirol-zuzendaria, federazioetako kideak eta ETL batzordea) lehenbailehen ebatziko ditu aurkezten diren erreklamazioak. Horrek ez du eragotziko interesdunak errekurtsua jartzeko aukera, egitatezko akatsagatik edo ukitutako pertsonaren nortasuna oker dagoenean. Errekurtsua bi egun balioduneko epearen barruan aurkeztu beharko dira, epaimahaiak ebazpena ematen duenetik zenbatuta.

14.4 Erreklamazio batean txakurra denean erreklamazioaren xedea lesioren bat jasan duelako, probako al baitariak aztertu beharko du txakurra, eta kirolariaren ardura izango da txakurra aztertzerantz eramatea. Erasotutako txakurraren

azterketa erreklamazioa aurkeztu ondoren egingo da, kirol-zuzendariak adierazitako unean eta lekuan. Txakurra ez bada azterketara eramaten, ezetsi egingo da erreklamazioa.